



Getxo

ANDRÉS ISASI MUSIKA ESKOLA

bizi ezazu

MED

Musika Eskola Digitala

Zenb./Nº 18
Urtea/Año 2013
Azaroa/Noviembre

OROIGARRIA

Azaroaren 22a da gure zaindariaren jai ofiziala. Egun horretan, Eskola itxita izango da. Ospatzeko entzunaldia 21ean izango da. Bertan izango zarela espero dugu. Entzunaldi horretan, gure bigarren Zuhaitz Solidarioa piztuko dugu.



Ba al zenekien Santa Zezilia, Erromako Zezilia, kristaua bihurtutako noble erromatarra zela eta, tradizioaren arabera, 180 eta 230 urteen artean, bere fedea zela eta, martirizatua izan zela?

Eliz katolikoan, hainbaten Zaindaria da: musikariena, poetena, itsuena (Siracusako Santa Luziarekin batera) eta Frantziako Albi, Estatu Batuetako Nebraska Estatuko Omaha eta Argentinako Mar del Plata hirietakoa.

Bere ikurrak, organoa, lautea eta arrosak dira. Bere ohorez, XIX. mendeko eliz-musika katolikoa eraberritzeko mugimendu garrantzitsu bat cecilianismo izenez izan zen ezagutua.

2012-13 IKASTURTEKO ASEBETETZE-INKESTA

301 ikasle edo guraso izan zarete Ikerfel enpresak joan den ekainean egindako inkestan parte hartu duzuenak, ematen dizuegun zerbitzuarekin duzuen asebetetze-maila ezagutzeko asmoz. Eskolatik jasotzen duzuen informazioari buruz, irakasleei buruz, hezkuntza-proiektuari buruz, etxean ikasteko ematen dizkizuegun aholkuei buruz, tutorearekin dituzuen elkarrizketei buruz, entzunaldi eta jardueri buruz, geure fonotekari buruz, ikasteko hizkuntzari buruz eta Algortako Musika Eskolako proiektuari buruz itaundu dizuegu. Zuen balorazioak, oso aldekoak izan baitira, eta proposatu dizkiguzuen hobetzeko arloak eskertu nahi dizkizuegu. Guzti hau oso gogoan hartu dugu.

Musika Eskola Digitala-ko zenbaki honetan gure ustetan esanguratsuen direnak aurkeztuko dizkizuegu.


a) Eskolak ematen duen informazioa




b) Musika-tresnen irakasleak




c) Musika-lengoaiako irakasleak



d) Gure hezkuntza-proiektua



e) Gure jarduerak



f) Balorazio orokorra

	Ase gabekak (1-4)	Hala-holakoak (5-6)	Dezente aseak (7-8)	Oso aseak (9-10)	Ed/Es	Batez besteko puntuazioa (1-10)
2009	3%	15%	60%	22%	1%	7,5
2013	2%	5%	50%	42%	1%	8,2
DIFERENTZIA	-1	-10	-10	+20	=	+0,7

g) Hauek dira egin dizkiguzuen hobetzeko iradokizun nagusiak:

- Hobeto zabaldu gure hezkuntza-proiektua
- Zuekiko harremanak hobetu
- Gure instalazioak eta zuen eskura jarritako ballabideak hobetu

ESKERRIK ASKO ZUEN LAGUNTZAGATIK

II ZUHAITZ SOLIDARIOA

Laster izango dugu piztuta aurtengo Gabonetako Zuhaitza. Santa Zezilia eguna ospatzeko errezitaldian piztuko dugu. Bigarren urtez berezia egin nahi dugu, zuen solidaritatea bilatuz: oraingo honetan, haurrentzako gaiak (esne-hautsa, poteko janariak, haur-oihalak...) bilduko ditugu eta bertan uztera gonbidatzen zaituztegu. Aurreko edizioan bezala, Sortarazi, Getxon, Leioan eta Bilbon gizarte-bazterkeria pairatzen duten pertsonen alde lan egiten duen irabazi-asmorik gabeko elkartea, izango da behar dutenei helarazteaz arduratuko dena. Ekarpen txiki honek hain hurbil ditugun familia hauek Gabon hauetan babestuago senti daitezen balio dezala espero dugu. Zuhaitza abenduaren 20ra arte izango da piztuta.

Anima zaitzteze

AGENDA

Azaroa

Azaroak 19: Hari-tresnen kontzertu didaktikoa, 11:00etan Getxoko ikastetxeentzat eta 17:45ean Musika Eskolako ikasle eta gainerako entzuleentzat. Musika Eskolako Entzunaretoan.

Azaroak 21: Santa Zezilia eguneko errezitaldia, 19:30ean. Musika Eskolako Entzunaretoan.

Azaroak 27: Biolin eta biola-ikasleen entzunaldia, 19:00etan. Getxo Elkartegiko erabilera anitzeko aretoan.